



Laneko arriskuen prebentzioa integratzea

Legezko oinarria eta funtsezko kontzeptuak


31/1995 Legea, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa: 14. artikulua. Laneko arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea



Prebentzio zerbitzuen erregelamenduari buruzko 39/1997 Errege Dekretua: 1. artikulua. Prebentzio jarduera enpresan integratzea.



Laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarriz eta aplikatuz.



Laneko arriskuen prebentziorako plana hasten da LAPLan ezarritako prebentzioaren xede eta oinarriak enpresaburuak bere gain hartzen dituztenean (hots, prebentzio politika ezarriz). Honako faseetan garatzen da:

1. Enpresaren ezaugarrien azterketa orokorra: lantoki bakoitzeko datuak eskuratzen dira: ekoizpen prozedurak eta haien arrisku nagusiak, langile kopurua eta dituzten lan edo kontratazio baldintzak (prebentzioan duten garrantziaren arabera), kudeaketarako sistema orokorra, etab.
2. **Prebentzio sistemaren diseinua**: kudeaketa sistemaren unitateen jarduerak eta haien arteko loturak planteatzen dira, prebentzioari dagokionez (Prebentzio Zerbitzua barne).
3. Sistemaren ezarpena: gutxieneko baldintza batzuk betetzen baditu kontsideratuko da sistema funtsean ezarritzat eta sistema gisa jardun dezakeela (ikus geroago).
4. Sistemaren berrikuspina eta hobetzea: sistema berrikusi/hobetu behar dela ikus daiteke gorabehera edo kalte bat gertatzean, aldaketa garrantzitsu bat aurreikustean edo kontu ikuskatze batean.

Laneko arriskuen prebentziorako **sistema prebentzioaren** kudeaketarako sistema da, enpresaren kudeaketa orokorrean prebentzioa integratzearen ondorio (beraz, haren azpistema bat kontsidera daiteke).

Sistema baten diseinua:

Proiektu bezala dokumentatzen dela esan nahi du, prebentzio alorrean kudeaketarako sistema orokorraren unitateko jarduketak (eginkizunak eta jarduerak) eta elkarren arteko loturak deskribatuz (barne hartzen dira antolamenduaren eta baliabide berezien jarduera, baliabideak enpresarenak edo besterenak izan).

Sistemaren ezarpena:

Uler daiteke prebentziorako sistema bat abiatu dela, erabat diseinatua edo ezarria ez egonagatik, langileei kontsulta egin, eta ondoko hauek betetzen direnean:

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Plan bat ezin da izan Prebentzio zerbitzuak egin eta enpresaburuak onetsitako dokumentu bat bakarrik.** Prebentzioaren integrazioa eraginkorra izan dadin, nahitaezkoa da antolamenduko egiturari (zuzendariak eta agintariak), langileei eta beren ordezkariari kontsultatzea eta haien parte hartzea plana egitean, abiaraztean eta aplikatzean (sistemaren diseinua, ezarpena eta "funtzionamendua").
- Plan baten dokumentazioan sartu behar da ezarritako edo ezarri nahi den sistemaren (edo horren zati baten) deskribapena, eta azken kasuan, zer jarduera aurreikusi diren horretarako. Jarduera horiek sar daitezke aipatu dokumentazioan edo prebentzioaren planifikazioari dagokionean. Horretan bilduko lirateke prebentziorako jarduera "bereziak" eta prebentzioa integratzekoak Berez, ezarritako edo ezarri nahi den sistemaren deskribapen sintetikoa da plana
- Enpresa bateko edozein lantokitan, horretan eragina duen planeko dokumentazioak aise aztertzeko moduan egon behar du, eta eskuragarri, agintari eta langileen ordezkariarentzat.

Enpresaren kudeaketarako sistema orokorra da prebentziorako sistema, azken batean, bere xedeetan "langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea" sartu eta gai horretan enpresaren betebeharrak betetzen dituenean.

Prebentziorako sistemak, aplikagarri zaizkion antolamendu betebeharrak bete behar ditu (adibidez, baliabide berezien antolamenduari dagokionez) eta prebentzioa kudeatu, halako moduz, non prebentzio jarduerak (adibidez, arriskuen ebaluazioa) beteko dituzten legez eskatzen zaizkien betebeharrak.

- Antolamendu modua eta baliabide berezien jarduera (enpresarenak edo besterenak) zehaztu direnean, eta horiek prest daudenean aurrera eramateko.
- Enpresaren kudeaketarako sistema orokorraren unitateen eginkizunetan prebentzioa nola integratu definitu denean (nahiz eta eginkizun horiek garatzeko jardueretan osoki ez sartu oraindik).
- Arriskuen hasierako ebaluazioa egin eta jarduerak planifikatu direnean (bereziak edo prebentzioa integratzekoak).

Sistemaren berrikuspena eta hobetzea:

Behin ezarririk, prebentziorako sistemaren jarduketak ziklo bat jarraitzen du, ondoko hauek dituena:

1. Arriskuen ebaluazioa (hasieran, aldian-aldian edo noizik behin).
2. Prebentzioaren planifikazioa (neurriak, materialak, antolamendua, eta arriskuak gutxitzeko eta kontrolatzeko jarduerak).
3. Planifikatutakoa gauzatzea eta haren jarraipena egitea.
4. Aldaketen, gorabeheren, kalteen kontrola eta hobekuntzarako aukerak.

Prebentziorako sistema bat eraginkortzat hartzen da baldin, orokorrean, lortzen badu lan-baldintzak "osasuntsuak eta seguruak" izatea eta, bereziki, legezko baldintza aplikagarriak betetzea (edo arrazoizko epe batean betetzea), eta horri eusten badio denboran zehar.

Sistema aldatu beharko da eraginkorra ez den orotan: hori ikus daiteke gertatzen diren istripu/gorabeheretan, sistemak egiten dituen kontroletan edo Laneko Arriskuen Prebentziorako ikuskaritzetan.

Prebentzioa integratzeko jarraibide praktikoak

Jarduera, eginkizun edo unitate batean **prebentzioa sartzeko beharra** ez da berdina enpresa guztietan eta langileen segurtasunaren eta osasunaren gainean zenbatekoa izan egindakoen edo omisioen eragina, hainbatekoa du garrantzia.

(Konparazio batera, askozaz ere garrantzitsuagoa da prebentzioa integratzea langileek erabiltzen dituzten produktuak eskuratzeko "Erosketa departamentu" batean, "Salmenta departamentu" batean baino. Mantentze-lanen kasuan, integrazioa nahitaezkoa da).

Oro har, oso beharrezkoa da prebentzioa integratzea ondoko hauetan:

- enpresaren zuzendaritzan
- langileei egindako kontsultetan
- arriskutsu izan daitezkeen jardueretan
- instalazio edo ekipo arriskutsuen mantentze-lanetan
- eta, oro har, aldaketen aurreko jarduketan (adibidez, ekipoen edo produktuen erosketan).

Zuzendaritzak arduraz jokatu behar du prebentzio alorrean, eta ardura harrarazi behar dio maila hierarkikoan hurrengoia denari, horrek ere berdin joka dezan eta prebentzioaren integrazioa enpresaren maila guztietan ezar dadin, bata bestearen atzean.

Langileei egin beharreko kontsulta hertsiki lotua dago prebentzioaren kudeaketarekin, "langileen segurtasunean eta osasunean eragina duen edozein jarduera" kontsultatu egin behar baita. Bereiz daitezke kontsulta "orokorrak" (Planari edo urteko plangintzari, eta abarri buruzkoak) eta bereziak (adibidez, SPE baten hautaketa). Lehenbizikoei dagokienez, komeni da berriazko prozedura bat izatea (zer, nola eta noiz kontsultatzen den; zer Unitatek kudeatzen duen eta zer eginkizun duen Prebentzio zerbitzuak). Bigarrengeantz, aski da kontsulta dagokion prozedurari eranstea (adibidez, etxebizitza erostekoari).

Arriskutsu izan daitezkeen (izaeragatik eta "zenbait jarduera batera etortzeagatik") edozein jardueraren kudeaketan eta exekuzioan sartu behar da prebentzioa. Oro har, pertsona berak gainbegiratu beharko luke ekoizpen eta prebentzio baldintzak betetzen direla ("integrazio printzipioa" aplikatzeko).

Arrazoi prebentiboengatik aldian-aldian edo noizik behin mantentze-lanak edo berrikuspenak/ikuskapenak (nahitaezkoak badira, batez ere) behar dituzten ekipo, instalazio edo lantokiak zehaztu behar dira, baita ezarri ere zer lan egin behar diren, nola egin segurtasunez, zeinek eraman ditzakeen aurrera, zer maiztasunarekin, zer egiaztagiriko behar dituzten, etab. Hori bukatu, lanen kudeaketan eta exekuzioan parte hartu behar duten unitateen zeregina izendatu eta definitu ahalko da (Prebentzio Zerbitzua barne).

Enpresa guztietan izaten dira aldaketak (ekipoak edo produktuak erostea, jendea kontratatzea edo toki aldaketak, obra edo zerbitzuengatik kontratazioa, etab.) prebentzioan ondorioak izan ditzaketanak, lan baldintzetan aldaketak ekartzen ditzutelako. Aldaketa bakoitzaren aurreko jardunbidea antolatu behar da: aldaketa zer prebentzio baldintzari egokitu behar zaion definitu eta zer "prebentzio eginkizun" duten aldaketa honen ardura duen Unitateak nahiz Prebentzio Zerbitzuak.

Antolamendu unitatearen **integrazio gradutzat** uler daiteke bere eginkizunak betetzeko duen autonomia gradua, Prebentzio Zerbitzuaren/arduradunaren lankidetzarik gabe. Adibidez, "Erosketen departamentu" batean, beharrezko prebentzio baldintzak dituen ekipo mota bat erosteko prozedura bat egon daiteke, Prebentzio Zerbitzura/Arduradunarengana jo gabe edo, bestela, erosketa bakoitza egin aurretik kontsulta daiteke aipatu Zerbitzu/Arduradun horrekin (izan daitekeen integrazio txikiena).

Jarduera bat kudeatzeko ardura duen unitate batean prebentzioa integratzeak esan nahi du, gutxienez, egoki egiten dela kontrolatuko duela eta Prebentzio zerbitzuari/arduradunari jakinaraziko zaiola kontsultatu edo adierazi behar zaion edozein aurreikuspen, aldaketa edo gorabehera. Ezarritako prozedura (prebentzioa barne) betetzen duenean hartzen da "egokitza" exekuzioa, ez bakarrik lana egiten den moduan, baizik eta, behar denean, lantokiaren eta langilearen baldintzen betekizunak betetzen dituzten.

Papel del Servicio de Prevención

<p>Prebentzio Zerbitzuak (barnekoa zein kanpokoia izan) eginkizun funtsezkoa du prebentzio jarduera berezien kudeaketan eta exekuzioan</p>	<p>Lankidetzat testuinguru honetan, arriskuen ebaluazioaren eta, gehienbat, prebentzioaren antolamenduaren kudeaketa eta exekuzioa ez dira Prebentzio Zerbitzuarena bakarrik, bereziak izan arren. Aitzitik, <u>ukitutako unitateekin egin behar dira</u>. Batez ere, aipatu unitateen eta Prebentzio Zerbitzuaren arteko adostasunez hartzea komeni da baldintzetan aldaketak dakartzaten neurriak, ahal izanez gero.</p>
<p>Baina <u>enpresaburuen eta langileen aholkulari izatea hori bezain garrantzitsua da edo, nahi bada, garrantzitsuagoa, enpresaren kudeaketa sisteman integrazioa sustatu eta laguntzeko.</u></p>	<p>Prebentzio Zerbitzuaren lankidetzat funtsezkoa da Prebentzioa integratu behar den edozein jardura kudeatzeko ardura duen unitateekin, ondoko hauetarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Exekuzio prozedura finkatzeko, egiteko moduari eta baldintzei aplikagarri zaizkien prebentzio beharrezkoak zehaztuta. ➤ Haren kudeaketan eta exekuzioan parte hartzen duten langileak prestatu eta haiei informazioa emateko. ➤ Prebentzio Zerbitzuari kontsultatu edo jakinarazi behar zaizkion erabakiak eta gertakariak zehazteko.
<p><u>Integrazioak esan nahi du enpresako langile guztiek</u> gehiago hartzen dutela parte prebentzio jarduketan eta langileen <u>kontsulterei erantzun behar zaiela</u>. Tamaina eta arrisku zerbait duten enpresetan, zaila da kontsulta horiei erantzutea behar bezain laster, "urrutitik" egin behar bada, kanpoko Prebentzio Zerbitzu batetik. Horregatik komeni da langile bat izatea galdera xumeenak erantzun, eta enpresaren eta Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren artean zuzilana egiten duena.</p> <p>Hitzartutako jarduerari dagokionez, <u>kanpoko prebentzio zerbitzuek, integrazioa errazteko, enpresaburuari aholku eman eta lagundu</u> behar diote, baita haren eraginkortasuna neurtu ere. Garbi geldi bedi betebeharrak horrek lehenagotik antzemandako arazoei aurre egitea dakarrela enpresaburuarentzat. Honek konponbidea bilatzen jarraitu beharko du eta egoeraren zergatiak aztertzen.</p>	

Prebentzioaren integrazioa ETE eta enpresa txikietan

Jarduera arriskutsuak egiten ez dituzten 50 langilerainoko enpresek (Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko I. eranskinean aipatu baitira) modu erraztuan, eta dokumentu bakarrean egin dezakete:

- laneko arriskuen prebentzio plana
- arriskuen ebaluazioa
- prebentzio jardueraren plangintza

Beti ere langileen segurtasunaren eta osasunaren maila txikiagotzen ez bada.

Dokumentu hau laburra eta ulerterraza izanen da eta enpresaren jarduerara eta tamainara erabat egokitua. Ondoko hauek ezarriko ditu: neurri eraginkorrak enpresaren jardueran **prebentzioa integratzeko**, lanpostu arriskutsuak eta hauek desagertarazteko edo gutxitzeko neurriak, arrisku mailaren arabera hierarkizatuak, eta exekuzio planaren berri.

Arrisku jarduerarik ez duten enpresa txikietan plan baten dokumentazioak labur samarra behar luke (finean, "arriskurik gabeko" mikroenpresa batean, txikiagoa behar luke: nekez beharko dira bi orrialde baino gehiago).

Hori gertatzen da, oro har, enpresa txiki batek lanleku bakarra izan eta jende gutxik kudeatzen duelako, ekoizpen antolamendua xumea delako eta "prebentzio baliabideak" Kanpoko Prebentzio Zerbitzua besterik ez direlako.

Gainera, arrisku txikiko enpresa bada, plana xumeagoa da, bertan "datu garrantzitsuak edo laneko arriskuen prebentzioari dagozkionak" baizik ez baitira sartu behar

Enpresa txiki gehienek eta, batez ere, mikroenpresek, Kanpoko Prebentzio Zerbitzua daukate baliabide berezi bakar gisa.

Honen lana funtsezkoa da mota honetako enpresetan kudeaketa daramaten pertsonen (gutxi ohi dira) eginkizunetan prebentzioa sartzeko (gehienbat "izendatutako langilerik" edo prebentzio koordinatzaileak ez badute).

Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak integrazioa sustatu eta erraztu behar du eta, bereziki, aipatu pertsonen ardura hauek hartzeko konbentzitu behar ditu:

- Prebentziorako oso garrantzitsuak diren inguruabarren kontrola, adibidez jarduera bat behar bezala egitea edo debeku bat errespetatzea.
- Prebentzio Zerbitzuari adieraztea haren esku hartzea beharko luketen gertakari edo erabakiak, adibidez ekipo bat erosteko edo langile bat kontratatzeke asmoa.

Prebentzio baliabide propioak ez duten ETEetan integrazioa nahitaezkoa da prebentzioa eraginkorra izan dadin.

Hau da, aipatutako jarduerak ("kontrola" eta "adierazpena") ezin dira kanpotik egin eta "kanpoko" Prebentzio Zerbitzuko langileak etengabe enpresan izatea kontraesankorra izateaz gainera, oso zaila litzateke enpresa txikiarentzat horrelakorik mantentzea.


Oharrak

Enpresaren kudeaketarako sistema orokorrean laneko arriskuen prebentzioa integratzeari buruzko gidaliburu teknikitik hartu da fitxa hau, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalak egina da (LSHIN). Batzuetan, hango edukiak transkribatu dira.

Fitxan laburtutako kontzeptuek aipatu gidaliburuan dute azalpena. Beraz, komeni da bertan kontsultatzea atal bakoitzean sakontzeko:

- Integrazioaren oinarriko kontzeptuak.
- Integrazioa eta prebentzio zerbitzua.
- Prebentzioa integratzeko jarraibide praktikoak.
- Laneko arriskuen prebentzio sistema (eranskinarekin).
- Laneko arriskuak prebenitzeko plangintza.
- ETE eta mikroenpresentzako gogoetak (bere aplikazio adibidearekin).

Fitxa hau lotua dago Prebentzioko 8. Fitxa Teknikoarekin, eta haren osagarria da: Laneko Arriskuak Prebenitzeko Plana eta prebentzioa enpresan integratzea, biak Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak argitaratuak.



Integrazioa: enpresaren arrakastaren funtsik sendoena.

Arauen aipamena

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa (besteak beste, 54/2003 eta 25/2009 Legeetan sartutako aldaketak eragina izan dute hartan).

Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio zerbitzuen erregelamenduari buruzkoa (besteak beste, 604/2006 eta 337/2010 Errege Dekretuetan sartutako aldaketak eragina izan dute hartan).